

Orchestre Philharmonique du Luxembourg

Dukerri Handiko orkestra Luxenburgoko kulturaren alderdi dinamikoenetako baten erakusle da. 1933an debutatu zuenetik, Europa osoan aritu da. 1996an modu publikoan kudeatzen hasi ziren, eta 2005etik, bere egoitza den Philharmonie Luxembourg Europako areto garrantzitsuenetakoa da. 2012tik bi erakundeak entitate bera dira. Hogei herrialdetako 98 musikaririk osatzen dute, eta gidatu duten zuzendariak lortutako soinuaren dotoreziagatik ezagun da orkestra. Haren gidari izan dira Henri Pensis, Carl Melles, Louis de Froment, Leopold Hager, David Shallon, Bramwell Tovey eta Emmanuel Krivine. Gaur egun, Gustavo Gimeno da orkestraren zuzendaria.

Bost denboralditan zehar, OPLk Pentatone musika klasikoko zigilu diskografikoarekin kolaboratu du. Gaur arte kolaborazio honen bidez bost disko kaleratu dituzte, Anton Bruckner, Claude Debussy, César Franck, Gustav Mahler, Maurice Ravel, Giacchino Rossini, Dimitri Shostakovich eta Igor Stravinsky konpositoreei eskainita. 2020/21 denboraldian zehar orkestrako musika kideek Leonidas Kavakos eta Vicent Peirani hautatu zituzten artista egonaldiak egiteko, baita Patricia Petibon, Gautier eta Reaud Capuçon ere. 2003tik, ikasle, haur eta familientzako lan saioak eskaini ditu orkestrak. Dukerri Handiko Kultura Ministerioaren eta Luxenburgoko hiriaren menpe dago, eta BGL BNP Paribas, Luxenburgoko Bankua, CACEIS, Mercedes Benz eta Leir Fundazioa dira haren babesle.

La orquesta del Gran Ducado representa una parte muy dinámica de la cultura de su país. Desde su debut en 1933 ha estado presente en toda Europa. Gestionada públicamente desde 1996, ha convertido a la Filarmónica de Luxemburgo, su sede desde 2005, en una de las salas más prestigiosas de Europa. Desde 2012 ambas instituciones forman una misma entidad. Integrada por 98 músicos de veinte países, se la reconoce por la elegancia de su sonido, al que se ha llegado gracias a los sucesivos directores Henri Pensis, Carl Melles, Louis de Froment, Leopold Hager, David Shallon, Bramwell Tovey, Emmanuel Krivine, y actualmente Gustavo Gimeno.

Durante cinco temporadas, la OPL ha colaborado con el sello discográfico clásico Pentatone. Hasta ahora, esta colaboración ha producido ocho álbumes dedicados a obras de Anton Bruckner, Claude Debussy, César Franck, Gustav Mahler, Maurice Ravel, Giacchino Rossini, Dimitri Shostakovich e Igor Stravinsky. Durante la temporada 2020/21, los socios musicales de la orquesta han incluido a los artistas en residencia Leonidas Kavakos y Vicent Peirani así como a Patricia Petibon, Gautier y Renaud Capuçon. Desde 2003, la orquesta ha ofrecido multitud de conciertos y talleres para estudiantes, niños y familias. Depende del Ministerio de Cultura del Gran Ducado y de la ciudad de Luxemburgo, y está patrocinada por BGL BNP Paribas, Banco de Luxemburgo, CACEIS, Mercedes Benz y la Fundación Leir.

Gustavo Gimeno zuzendaria / director

Orchestre Philharmonique du Luxembourg (OPL) orkestrako zuzendaria da 2015/16 denboralditik, baita 2020tik Toronto Symphony Orkestrakoa ere. 2015eko izendapenetik, formatu ezberdineko kontzertuak zuzendu ditu Europako aretorik entzutetsuenetan. Denboraldi honetan, Alemanian, Espainian, Frantzia, Suedian eta Hego Amerikan zuzendari lanetan aritzeko gonbidatu dute, eta Yuja Wang, Anja Harteros, Bryn Terfel edo Frank Peter Zimmermann bakarlariekin partekatu du agertokia, besteak beste. Bere proiekturik interesgarrienetako bat Krystian Zimermanekin egindako Beethovenen pianorako kontzertuen zikloa izan da, Amsterdameko Concertgebouw Orkestrarekin berriz ere interpretatuko duena.

Valentzia jaioa, bere nazioarteko ibilbidea 2012an hasi zuen Mariss Jansonsen laguntzaile gisa, Amsterdameko Royal Concertgebouwn perkusionista zenean. Esperientzia nabarmena lortu zuen era berean Bernard Haitinken eta Claudio Abbadoren laguntzaile bezala; Gimenoaren mentore

izandakoek bere ibilbidea hainbat modutan modelatu zuten. 2025/26 denboralditik aurrera Madrilgo Teatro Realeko musika zuzendaria izango da.

Es director de la Orchestre Philharmonique du Luxembourg (OPL) desde la temporada 2015/16, y desde la temporada 2020/21, director de la Toronto Symphony Orchestra. Desde su nombramiento en 2015, ha dirigido conciertos en diferentes formatos y en las salas más prestigiosas de Europa. La presente temporada ha sido invitado a dirigir en Alemania, España, Francia, Suecia y Sudamérica, y ha compartido escenario con solistas como Yuja Wang, Anja Harteros, Bryn Terfel o Frank Peter Zimmermann. Uno de los proyectos más interesantes ha sido el ciclo completo de los conciertos para piano de Beethoven con Krystian Zimerman, ciclo que volverán a interpretar con la Orquesta del Concertgebouw de Ámsterdam.

Nacido en Valencia, empezó su carrera internacional como director en 2012 como asistente de Mariss Jansons, cuando era percusionista en la Royal Concertgebouw de Ámsterdam. También adquirió una considerable experiencia como asistente de Bernard Haitink y Claudio Abbado, que fueron sus mentores y modelaron su carrera en muchos aspectos. Ha sido nombrado director musical del Teatro Real de Madrid a partir de la temporada 2025/26.

Bruce Liu pianoa / piano

Bruce Liu bere belaunaldiko talentu nabarmenetako gisa sendotu da, eta "rock izarraren estatusa musika klasikora" ekarri du (The Globe). Bere azken denboraldian, Zuricheko Tonhalle Orkestra eta Paavo Järviarekin, Philharmonia Orchestra eta Santtu-Matias Rouvaliarekin, eta Varsoviako Filarmoniko eta Andrey Boreykekin egindako birak nabarmentzen dira, hala nola, Münchener Kammerorchesterrekin egindakoa, zuzendaritza programa batean. Gainera, igurikitako debutak egingo ditu New Yorkeko Orkestra Filarmonikoarekin, Irrati Finlandiarraren Orkestra Sinfonikoarekin, Danimarkako Orkestra Sinfoniko Nazionalarekin, Göteborgeko Orkestra Sinfonikoarekin eta Singapurreko Orkestra Sinfonikoarekin. Maiz egiten du lan zuzendari gorenarekin, hala nola, Gustavo Gimeno, Yannick Nézet-Séguin, Gianandrea Noseda, Rafael Payare, Vasily Petrenko, Jukka-Pekka Saraste, Lahav Shani eta Dalia Stasevska.

Munduko orkestra entzutetsuenekin egin du lan Bruce Liuk, hala nola, Wiener Symphoniker, Accademia Nazionale di Santa Cecilia, Rotterdameko Orkestra Filarmonikoa, Luxemburgoko Orkestra Filarmonikoa, Los Angeleseko Filarmonikoa, San Franciscoko Sinfonikoa, Filadelfiako Orkestra, Montrealgo Orkestra Sinfonikoa eta NHK Orkestra Sinfonikoa. Deutsche Grammophongo artista eksklusiboa, Waves bere azken diskoak Rameauren, Ravelen eta Alkanen lanak biltzen ditu. Bere lehen diskoak Piano Chopin Nazioarteko Lehiaketan jotako Chopinen lanak jasotzen zituen, eta Gramophone aldizkariaren Musika Klasikoko 2021eko Disko Onenen artean izendatua izan zen.

Bruce Liu se ha consolidado como uno de los talentos más destacados de su generación y ha contribuido a un "estatus de estrella de rock en el mundo de la música clásica" (The Globe). Lo más destacado de la última temporada de Bruce Liu incluye giras internacionales con la Orquesta Tonhalle de Zúrich y Paavo Järvi, Philharmonia Orchestra y Santtu-Matias Rouvali, y la Orquesta Filarmonica de Varsovia y Andrey Boreyko, así como la Münchener Kammerorchester en un programa de dirección. Además, realizará esperados debuts con la Orquesta Filarmonica de Nueva York, la Orquesta Sinfónica de la Radio Finlandesa, la Orquesta Sinfónica Nacional Danesa, la Orquesta Sinfónica de Gotemburgo y la Orquesta Sinfónica de Singapur. Trabaja regularmente con muchos de los directores más distinguidos como Gustavo Gimeno, Yannick Nézet-Séguin, Gianandrea Noseda, Rafael Payare, Vasily Petrenko, Jukka-Pekka Saraste, Lahav Shani y Dalia Stasevska.

Bruce Liu ha actuado a nivel mundial con importantes orquestas, incluyendo la Wiener Symphoniker, Accademia Nazionale di Santa Cecilia, Orquesta Filarmónica de Róterdam, Orquesta Filarmónica de Luxemburgo, Filarmónica de Los Ángeles, Sinfónica de San Francisco, Orquesta de Filadelfia, Orquesta Sinfónica de Montreal y Orquesta Sinfónica NHK. Artista exclusivo de Deutsche Grammophon, su último disco llamado "Waves" incluye obras de Rameau, Ravel y Alkan. Su primer álbum recogía las obras de Chopin que tocó durante el Concurso Internacional de Piano Chopin, y fue uno "Los Mejores Álbumes Clásicos de 2021" de la Revista Gramophone.